


**Azken kokreta** ▶ Kote



**Handik** ▶



Koldo Izagirre

**Luzuriagatik**

**L**ur jo eragin behar omen diete Luzuriagako azken paretei, Antxon. Luzuriaga... kamioiak herri erdian trabatuak, kirats handia, istripu latzak, asanbladak, grebak. Luzuriaga jaunak berak "Hemen lana beltz egin beharra zagok!" esan zion nire aitari lanera azaldu zen aurreneko egunean, 1925 hartan. Irabazitako lehen bost xentimokoa amari erakutsi eta leihotik harrika jaurti zuen. Ez zen berriz azalduko. Hamabi urte zituen, gezurra esanda hasia zen lanean. Ume hark ez zekien elkar hartuta soldata duinak lortuko zituztela langileek.

Duela hogeita hamar urte Tafallara lekutu zuen burdinola zati bat Luzuriagak, Antxoko jende mordo batekin. Orduan sortu zen Argia, hango ikastola.

Jende ona, Luzuriagakoa.

Gero Usurbilera aldatu zen Antxon zegoena, eta MCC erakundearen dago gaur. Lehengo batean J. eta L. topatu nituen, hemendik hara joandako lagu-

nak. Komitean dago J., eskarmentu handia dauka sindikalgintzan. Aspaldiko laguna dut L., trazado-rea. Halako orekatxo bat omen daukate pasai-usurbil-arrasatearrak direnez geroztik. "Lortu diagu kontratu berri guztiak mugagabeak izatea", pozik J.

Jende ona, Luzuriagakoa.

"Baina nardagarria duk besoa lepoan jartze hori".

L. on puska izan da beti, harritu egin ninduen mintasun hark. Zer esan nahi zuen.

"Kooparativismoaren gurasokeria apezkoi hori... Ezin diat agoantatu".

Onak gaiztotzeko, fabrikak.

Luzuriagatarrek bazuten txalet eder bat Uliaren orpoan, frontoi eta guzti. Hura ere lurrarekin berdindu dute, luxuzko bunkerrak ari dira egiten orain.

Luzuriagatik zutik irauten duten bakarrak, langileak dira.

(Nahiz aitak herren puska bat egiten duen).